

 kutxabank	FINANTZA ALOKAIRUA: LEASING	EPIGRAFEA 12
	Egun honetatik indarrean: 2019.01.08	1. orria 1(e)tik

1. Irekiera-komisioa

Finantzatutako kapitalaren gaineko % 2,00, kontratua formalizatzean edo lehen likidazioan aldi bakar batean kobratzekoa. 150 euroko gutxienekoa.

2. Azterketagatiko eta informazioagatiko komisioa.

Printzipalaren edo eragiketako mugaren gaineko % 2,00, formalizatzean edo lehen likidazioan aldi bakar batean kobratzekoa. 150 euroko gutxienekoa.

3. Kontratua edo horren bermeak aldatzeagatiko komisioa.

Aldaketaren unean amortizatzeko dagoen kapitalaren gaineko % 1,50. 150 euroko gutxienekoa. Kontratu-aldaketatzat edo bermeen aldatetzat joko da bezeroak hala eskatuta kontratuan izandako eta erakundeak onartutako aldaketa oro, hauei dagokienez: esku-hartzaileen aldaketa, bermeen edo epearen, mugen, likidazio-baldintzen eta ordainketa-tresnen aldaketa edo hasieran sinatutako dokumentuan kontratu-aldaketa ekar dezakeen beste edozein aldaketa.

4. Aldez aurreko amortizazioengatiko eta kitapenengatiko komisioa.

Amortizatu edo kitatu beharreko kapitalaren gaineko % 5; aldez aurreko amortizazioa edo kitapena bezeroak eskatuta gertatzen denean aplikatuko da. 150 euroko gutxienekoa

5. Ordaindu gabeko kuotak itzultzeagatiko komisioa. (3. oharra)

Ordaindu gabeko kuotaren gaineko % 5. 6,00 euroko gutxienekoa.

6. Mugaeguneratutako posizio zordunen erreklamazioagatiko komisioa.

Bezeroak ez ordaintzeagatiko egoera bakoitzean, mugaeguneratutako posizio zordunak sortzean 35,00 €-ko zenbateko finkoa jasoko da, erregularizatzeko eskatzen duen idatzizko lehen erreklamazioa egiten denean.

- 1. oharra** Posta-gastu gisa jasoko dira likidazio bakoitzarengatik sortutakoak, une bakoitzean indarrean dauden posta-tarifen arabera. Era berean, sortutako telefono eta abarretako gastuak jasoko dira.
- 2. oharra** Fede-emaila publikoaren esku-hartzeagatiko gastuak bezeroaren kontura izango dira. Behar bezala justifikatuta egon daitezkeen kanpo-izaerako beste edozein kontzeptu bezeroari jasanaraziko zaio osorik.
- 3. oharra** Ordainagiri bakoitzaren itzulketagatik jasotzekoa, kuoten ordainketa Kutxabank ez den beste edozein erakundetan helbideratuta dagoenean.